

CREADORES DE ESCASEZ. DEL BIENESTAR AL MIEDO

David Anisi

Alianza Editorial, Madril, 1995, 149 orr.

Ugaltzen ari dira, azken aldi hone-tan, Ongizate Estatua delakoaren krisi sakonari buruzko ikerketa eta liburuak¹. Historian, eta batipat gaurregun-go historian interesa dugun guztiok arreta eskaini behar diogu herrialde kapitalista garatuetan gauzatzen ari den fenomeno honi, datorren urteetako kondaira azaldu nahi badugu behintzat: nola, 1950 eta 1960ko hamarkadetakako kapitalismoaren loraldiaren ondoren 1973ko krisiak dinamika hura hautsi eta, ondare bezala, gaurregun-go arazoak eta mundua utzi dizkigun; hau geroz eta ezinbestekoagoa da, ikasketa plan berrietan XX. mendearen bigarren erdialdea gai nagusitzat duten asignaturen ugaltzea kontutan harturik. Analisi hori mila forma eta ikuspuntutatik egin daiteke (adibidez, Estatu Batuetatik azken bi hamarkada hauetan ailegatu zaizkigun filmeei barrenak ateraz...), baina ekonomiaren eta politika ekonomikoen azterketa ezinbestekoa da, zerbait ulertu nahi badugu behintzat. Arlo honetan kalera-tzen den produkzioari jarraipen minimo bat egitea ia ezinezkoa da, behintzat ni bezala ekonomilari osoa ez den baten-tzat. Ortodoxia neoliberalaren ildotik doazenak kontaezinak dira, eta ez

ditut hemen gehiegi aipatuko; azken finean, ekonometrentzat interesgarriak izan daitezkeen ariketa matematiko ezberdinak alde batera utzita, esaten dutena oso erregela errazetan laburbil-tzen da, komentatzera noan liburuaren egileak berak, David Anisik dioen bezala, ortodoxia horien defendatzaile sutsuenak diren Nazioarteko Moneta-Fondoa eta antzeko erakundeek kale-ratutako lanen edukina azaltzerakoan:

...todo lo que nuestro aspirante a este curso acelerado de economía, que le permite actuar "como si" fuera un experto de tales instituciones [FMI...] sin que nadie pueda percibir la suplantación, es lo siguiente:

1. Todo lo que es relativamente abundante se abarata y todo lo que es relativamente escaso se encarece.
2. Individuos, familias y empresas toman sus decisiones sobre consumo, inversión y uso de las tecnologías adecuadas, consultando el sistema de precios que reacciona según el punto 1.
3. Cualquier problema económico surge de que
 - a. No hay un mercado en el que ese problema quede reflejado.
 - b. Hay un mercado pero no funciona perfectamente porque alguien interfiere.

1. Ikus, esate baterako, *Uztaro*-ko orrialde hauetan (8 -1993-, 168-171. orr.) jadanik komentatu ditugun S. Bowles, D. M. Gordon eta T. E. Weisskopf-en *La economía del despilfarro* (Madril 1989) eta *Tras la economía del despilfarro* (Madril 1992), estatubatuar ekonomia dutelarik aztergai; Anisiren liburuaren bidetik azken aldi honetan argitaratu den beste bat J. Torres López-ena litzateke, *Desigualdad y crisis económica: el reparto de la tarta* (Madril 1995), askoz ere "akademikoagoa" eta oso aberatsa, batez ere eskaintzen duen bibliografia eta dokumentazio aldetik. Deskriptiboagoa eta maila zientifiko txikiagorekin, baina orobat baliagarria, ikus L. Falcón, *Trabajadores del mundo, ¡rendíos!* (Madril 1996).

4. Para solucionar cualquier problema económico:

a. Si la causa es 3.a, créese el mercado.

b. Si la causa es 3.b, déjese de interferir, y flexibilícese tal mercado... (109. or.)

Ongizate Estatuarekin gertatu dena jakiteko beste ikuspegi alternatibo bat dago. Ikuspegi hau anitza dela esan dezakegu: (post)marxismotik eta erradikalismotik egindako krisiaren azterketetatik neoliberalismoak ia-ia zakarrontzira bota duen paradigma keynesiarraren lantuetaraino zabaltzen den analisi-eremu zabalak osatuko lukeena, alegia. Hortxe kokatzen dira beldur handirik gabe keynesiar eta J. K. Galbraith ekonomilari famatuaren jarraitzailetzat jo dezakegun Anisi jauna eta bere liburuxka.

Egilea, Salamankako Unibertsitateko katedraduna, obra teoriko oparo baten sortzailea da (*Tiempo y técnica*, Madril 1987, *Modelos económicos. Una interpretación de la macroeconomía*, Madril 1991 –3. arg.–, *Jerarquía, mercado y valores. Una reflexión económica sobre el poder*, Madril 1992), baina baita artikulua pilo batena eta goi-dibulgazioko testuena, adibidez, gure iruzkin honekin zerikusi handia eta izenburu nahikoa adierazgarria duen *Trabajar con red. Un panfleto sobre la crisis* (Madril, 1990 –2. arg.–). *Creadores de escasez*, ekonomia “gogorreko” liburu bat baino gehiago azken mende laurden honetako ekonomia bilakaerari buruzko hausnarketak labor baina sakon bat dugu. Aparatu kritikoa gutxieneko batera

mugatuz baina zehaztasunik galdu gabe (egileak bere artikulua eta liburu trinkoagoetara igortzen gaitu), erraz irakurtzen den testu bat da, kalitaterik galdu gabe: azalpenak oso argiak dira, adituen eta baita ekonomian interesatuta daudenen muga hertsia gaitu nahi dituela ematen duelarik. Hau benetan eskertzekoa da, gehiegitxo baitira espainiar (eta, tamalez, baita euskal) idazleen artean ia ulertezinak suertatzen diren ekonomia-adituak². Lana orokorra da eta hainbat adibide eskaintzen baditu ere, mendebalde kapitalistako ekonomiak osotasun bat balira bezala hartzen ditu.

Liburua bi atal handitan banatua dago, “La crisis del Estado del Bienestar” eta “La gestión de la crisis”. Lehenengoan, krisiaren analisisian sartu baino lehenago, sistema kapitalistaren funtzionamenduaren lerro nagusiak laburbildu ondoren (merkatuaren nagusitze progresiboa litzatekeelarik prozesu honen ezaugarriarik inportanteena³), Ongizate Estatuaren oinarriak aztertzen ditu, 1950-60 hamarkadetakoa hazkundearen alegia (“La génesis del Estado del Bienestar” azpiatalean). Ongizatearen Estatua eta beroni bizia eman zion itun keynesiarra enplegu osoan eusten zirela dugu Anisiren tesia:

Llamamos pacto keynesiano al acuerdo social implícito que permitió la construcción en Occidente del Estado del Bienestar. De acuerdo con su diseño se permitiría el crecimiento de los salarios reales y del tipo de beneficio, de la masa salarial global y de los beneficios totales en un marco general de seguridad, y sobre todo de pleno empleo, sin

2. Argitasun bokazio honen partaidea dugu, esate baterako, J. F. Martín Seco-ren *¡La economía, estúpidos, la economía (La política económica del socialismo)* artikulua bilduma (Madril 1993). Ekonomilarien esoterismoa eta beronen oinarriak buruz, ikus P. Ormerod, *Por una nueva economía. Las falacias de las ciencias económicas*, Bartzelona 1995.

3. Alor honetan Anisiren liburuak K. Polanyiren *La gran transformación* (Madril 1989) maisulanaren tesiekin bat datorrela dirudi.

cuestionar las libertades y afianzando, profundizando y extendiendo la democracia. Y todo ello se haría reduciendo a lo más mínimo la discusión distributiva y con estabilidad del peso relativo del sector público en la economía (40. orr.).

Gobernuaren edo Estatuaren rola, testuinguru honetan, erabakiorra zen, baina ez ahalguztiduna: gastu publikoa zabaldu egin zen, baina baita inbertsio pribatuak eta esportazioak ere (puntu honetan insistitzen du, Ongizate Estatuaren eraispenaren justifikazioen artean Estatu gastuen zuloarena erabilienetakoa izan delako). Estatuaren lana bikoitza zen: berez nahikoa altua zen eskari pribatua osatzea, eta gizarte-gastuen bidez langileek (enplegu osoko egoera batean erraz egin zezaket bezala) soldaten gainean gauzatu zezaket gehiegizko presioa saihestea.

Lehenengo atalaren bigarren zatia “El desarrollo del Estado del Bienestar y su fracaso” dugu. Ongizatearen Estatuaren zabalkuntzak zituen mugei buruzko sarrera sakon baten ondoren, Anisi porrotaren zergatietan murgiltzen da. Alde batetik, soldata errearen jarraiko igoerak, 1968ko “Iraultzaren” garaia inguruko enpresarientzako ez oso egokia zen gizarte-klima batekin batera, ekonomiaren batz besteko mozkin tasa jaitsiarazi zuten, enpresarietokizunean zuten konfidantza ahulduz, gainera: puntu honetan garatu zen krisiaren muina. Beste aldetik, 1971-73 urteetan gauzatu zen nazioarteko ekonomiaren baldintzen aldaketa sakona, EEBBen nagusigoaren gorabeherak, moneta-sistemaren porrotak eta petrolioaren krisiak eragindakoa. Eta, azkenik, Estatuaren krisia, gorantza egin zuten gastuek eragindako defizita edo “zuloa” alegia. Egilearen ustez itun keynesiarrek, tazitoki, ametitzen zuten Estatuaren gastuak

muga bat izan behar zuela: eskaintzaren krisiak berak eragindako inbertsioaren jaitsierak eta langabeziaren hazkundeak Estatuaren defizita handitu zuten, ordea.

Eta alor honetan datza azalpenaren gakoa, krisiari aurre egiteko hartu diren politiketan alegia. Anisirentzat Ongizatearen Estatuaren gainbehera ez baita krisi ekonomikoaren ondorio soila: honek ez du azaltzen, esate baterako, krisiaren luzapena gaur egundaino. Krisi ekonomikoa gertatu bada, dio egileak, Ongizatearen Estatu kolokan jarri delako izan da (70 hh.). Bigarren atala, “La gestión de la crisis”, gai honen inguruan ardazten da, beste bi azpiataletan ere zatitua dagoelarik. “Los años ochenta” delakoan sisteman urte horietan zehar mozkin tasa eta enpresariaren konfidantza (“gizarte-giro” egokia) berreskuratzeko erabili den tresna nagusiaren analisisa egiten da: langabeziarena alegia. Lan indarra “disziplinatu” beharra zegoen:

La expresión “disciplinar la fuerza de trabajo” quizá le resulte demasiado fuerte a algunos. Dejémoslo en que se utilizó el desempleo para restaurar el tipo de beneficio. Y que para hacerlo había que conseguir que los salarios reales crecieran menos que la productividad, esto es, había que conseguir una redistribución de la renta en contra de los salarios.

El desempleo se utilizó como una simple estrategia para lograr la moderación en el crecimiento de los salarios reales y conseguir así el aumento del tipo de beneficio.

Y la base para esta estrategia era extraordinariamente simple. De la misma forma que, en un mercado, cuando existe exceso de oferta el precio tiende a bajar, lo mismo debería ocurrir con el precio del trabajo si existiera desempleo: el salario debería bajar (77-78. orr.).

Horrela, gastu publikoa murriztu egin da (baina ez guztia: batez ere gizarte-gastuak) eta langabezia ohiko zerbait bihurtu da gure gizarteetan, indibidualismo gero eta bortitzago batek ordezkatu duelarik 60ko hamarkadako elkartasun giro hura-edo. Justifikazioa, hasiera batean, gure enpresarien beharrak izan ziren: gehiago inbertitu behar bazuten, lehenengo mozkin maila hobetu behar zen. Baina azkenaldi honetan mozkin maila ez da hainbestetan agertzen diskurtso ofizialean: orain azpimarratzen dena lehiagarritasuna edo konkurrentzialtasuna da, urte hauetan zehar emandako aldaketan ondorioz: 60ko hamarkadatik geratutako teknologia berriek Mundu mailako Lan-Banaketa berri bat gauzatzeko aukera eskaini dute: soldata baxuagoak dituzten herrialde horiekin konpetitu nahi badugu, hortaz, lana merkeago egin beharko dugu.

“Hoy y ahora” azkenengo azpiatala normatiboena dugu. Lehenengo Ongizatearen Estatuaren krisiaren ondorioei errepaso bat egiten die Anisik: langabezia, behin-behinekotasuna, legez kanpoko enpleguak, delinkuentzia, drogazaletasuna, hots, kaosa⁴, eta, azken finean, honek guztiak eragiten duen Estatuaren gastuen eta sarreren geroz eta desoreka handiagoa (gastuaren mozketaren gehiago egiteko erabiltzen den aitzakia, PPren gobernu berriak oraintsu aldarrikatu duen bezala, bestalde). Desoreka hauek, ordea, egilearentzat iturburu bakarra dute: enplegu osoaren helburua uztea, alegia. Soluziobide posibleen zerrenda xumeagoa da: enplegu osoaren helburua berokatu behar dugula defendatuz, lanaren banaketa-

ren inguruko eztabaidak aurkezten dizkigu egileak, baina baita berak, argiki postkeynesiarra den ikuspuntu batetik, egokiagoa iruditzen zaion alternatiba:

Se trata de utilizar el crecimiento de la productividad para la generación de empleo utilizando las organizaciones de intermediación.

En este caso (...) el salario real por hora efectiva trabajada crecería al mismo ritmo que la productividad (...).

...un impuesto específico sobre salarios mantendría el salario real tras estos impuestos en el mismo nivel anterior, y la totalidad de lo recaudado se usaría para la provisión privada de bienes públicos gratuitos. (...) La propuesta supone la congelación de los salarios reales disponibles tras los impuestos, que no de los monetarios, que crecerían en la misma proporción en la que lo hiciesen los precios, utilizando el incremento de la productividad técnica para la creación de empleo en un sector específico (127-128. orr.).

Proposamenean (Anisik asko insistitzen du puntu honetan) Estatu bitartekaritza erakunde bat bezala agertzen zaigu, hots, merkatuak asetu ezin dituen beharren eta enpresen arteko esparru bat bezala: hauxe litzateke, egilearentzat, Ongizatearen eraikuntzan Estatuaren gehiegizko hazkundea eragindako akatsak alde batera uzteko biderik eraginkorrena.

Liburuaren edukia ikusi ondoren, lau gauza azpimarratu nahiko genituzke *Creadores de escasez* honetan. Lehenengoa, liburu hau ez dela iraultzailea, ezta orijinala ere: egia esateko, bertan agertzen diren ideia eta formulak aspaldidanik daude “merkatuan”.

4. Kaos mota honen hedakuntza eta gure hirietan izaten ari den ondorio sakonei buruz ikus, batez ere, R. Fernández Durán-en handigurako lana: *La explosión del desorden. La metrópoli como espacio de la crisis global*, Madril 1993.

Baina sintesi bezala izugarri argia eta, hortaz, gomendagarria dela uste dugu. Eta honek oso baliagarria egiten du, bai adituarentzat (interpretazio orokorren behar handia izaten baitu, ikerketa partzialez eta monografiez beteriko bere mundu akademikoak eskaintzen ez diona hain zuzen ere), bai ekonomiaz gutxi edo ia ezer ez dakienarentzat ere, liburuaren hizkuntza erraza eta aldi berean oso zehatza baita.

Bigarrena, Ongizatearen Estatuaren sorreran Sobiet Batasunaren "mehatxu" ekonomiko eta ideologikoari ematen zaion garrantzia nabarmentzen da (ikus adibidez 38 hh., 101 hh. eta 113 hh.): izan ere, neoliberalismoak ezarritako doikuntza neurriek SESBaren boterearen ahulketa prozesu eta desagertpenarekin erlazionatzen ditu. Eric Hobsbawm-ek bere *Historia del siglo XX (1914-1991)* liburuan dioen bezala (Bartzelona 1995):

Una de las ironías que nos depara este extraño siglo es que el resultado más perdurable de la revolución de octubre, cuyo objetivo era acabar con el capitalismo a escala planetaria, fuera el de haber salvado a su enemigo acérrimo, tanto en la guerra como en la paz, al proporcionarle el incentivo –el temor– para reformarse desde dentro al terminar la segunda guerra mundial y al dar difusión al concepto de planificación económica, suministrando al mismo tiempo algunos de los procedimientos necesarios para su reforma (17. or.).

Beste puntu inportante bat, kapitalismoaren urrezko garaia (eta baita beronen krisia ere) aztertzen dutenek maiz ahazten edo, gutxienez alboratzen dutena⁵, sistemaren periferiaren edo herrialde azpigaratuen

rolarena dugu. Anisiren liburuan gai hau nahikoa marjinala bada ere, oso argi azaltzen du langileek gozatu zituzten Ongizatearen Estatuaren erosotasunek, hein batean behintzat, garai haietan Hirugarren Mundua deitzen zenaren ustiapenean dutela oinarria. Eta, noski, zernolako garrantzia izaten jarraitzen duen sistemaren krisi garaietan, teknologia berrikuntzek posible egin duten mundu mailako lanbanaketa berriari esker. Aspektu hau, leihagarritasunaren diskurtsoaren oinarrietako bat dena (merkeago produzitu behar dugula guk baino merkeago produzitzen duten herrialde horiei –batez ere asiareei– aurre egiteko) merkataritza justuago baten eta Hegoaldeko herrien lan-baldintza eta bizimailen igoeraren aldeko apustua bihurtzen da liburuaren azken orrialdeetan (ikus 131 hh.), L. de Sebastián-en *Mundo rico, mundo pobre* liburuan (Santander 1992) agertzen diren benetako merkataritza librearen aldeko jarrerak gogora ekartzen dituelarik.

Azkenik, esan beharra dago Anisik merkatuaren funtzionamenduaren azterketara mugatzen ez den bere ekonomiaren ikuspuntua aurkezteko froga-eremutzat hartzen duela oraindik bizi dugun krisialdiari buruzko lan hau eta, izan ere, bere aipatu *Jerarquía, mercado y valores* liburuan hain argi geratzen ez zirenak hobeto ulertuko dituela irakurleak *Creadores de escasez* honetan, teorizazio maila ez baita aurreko obran bezain handia eta aspergarria (ikus, bereziki, 16 hh.). Baina bide honetatik Estatuaren paperari eta ekintza-formari buruz ateratzen dituen ondorioak ez zaizkigu hain eztabaidaezinak iruditzen: ez dugu hain argi ikusten zer diren bitarte-

5. Hauxe zen, hain zuzen ere, lehen aipaturiko Bowles et alii-ren liburuei leporatzen geniena, ikus *Uztaro* 8 (1993), 171. or.

karitza erakunde horiek (“organizaciones de intermediación”), eta (oinarri bibliografiko xehe bat badu ere) zergatik ezin den Estatuaren ekintza zuzena ekonomikoki eraginkorra izan (ikus bereziki 56 hh.). Honekin ez dugu esan nahi Estatuaren nonahikotasun ekonomikoaren defendatzaile garenik (izan ere, ez gara gai honetan adituak, eta ezin diegu Anisiren argumentuei kontraproposamenik egin), baizik eta puntu honek garapen zabalago bat beharko lukeela, eta bitartekaritza erakundeen izaera eta ezaugarriei buruz gehiago jakin beharko genukeela.

Ñabardura ezin xumeago hauek eginda, zera gehitu nahiko genioke

aipamen honi: merezi duen liburu bat dela eta, gainera, polemikarako parada ona eman dezakeela, *Hika* aldizkarian justu liburu honen atal baten berrargitarapenak iriki duen eztabaidak adieraziko lukeen bezala (ikus *Hika* 67, 1996ko maiatza, 30-33, komentatzen ari garen liburuaren azkeneko azpiataleko pasarte batzuk kopiatzen direlarik)⁶. Gutxienez gure iragan gertuaren eta etorkizunaren gaineko erreflexiorako aukera izango delakoan, gogoz aurkeztu dizuegu liburu txiki baina aberats hau.

Iban Zaldúa González.

6. Liburuak bide berriak iriki diezaizkio, bestalde, azken aldi honetan nahiko pil-pilean dagoen lan-denboraren banaketaren inguruko eztabaidari.